



EBAZPENA, 2024ko apirilaren 8koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen eta xedatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratzea 2024/2025 ikasturterako.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zuen. Agindu horren V. kapituluan eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren III. eranskinean, hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien urteko zerrenda birbarematzeko prozesuari buruzko araudia ezartzen dira.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko azaroaren 20ko Ebazpenaren bidez, 2024/2025 ikasturterako urteko birbaremazio-prozesua ireki zen.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko otsailaren 13ko ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin-behineko zerrenda, 2024/2025 ikasturtekoa, birbaremazioaren ondoriozkoa, eta bide batez 2024ko otsailaren 14tik 20ra bitarteko epea ireki zen horri buruzko erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igarota, aurkeztutako erreklamazioak aztertuta eta antzemandako akatsak zuzendu ondoren, behin betiko onartu behar dira 2024/2025 ikasturterako birbaremazio-prozeduraren ondoriozko zerrendak.

Horregatik guztiagatik,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda onartzea, 2024/2025 ikasturterako. Zerrenda hori burututako birbaremazio-prozesuaren emaitza da.

Bigarrena.- Izangaien behin betiko zerrenda horiek argitaratzeko agintzea webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-langileak/> Ordezkapenetarako izangaiak – Irakaskeak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) – 2024/2025-ikasturtearen birbaremazioa eta Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/es> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2024-2025 ikasturtea.

Era berean, dagokionean, izangai bakoitzak bere erreklamazioaren emaitza kontsultatu ahal izango du, dagokion arrazoiketarekin, horretarako gaitutako estekan "Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioaren emaitza kontsultatzea".



Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, telematikoki interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/eu> - Eremu pertsonala - Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2024/2025 ikasturtea – Behin betiko zerrendak – Behin betiko zerrendaren aurkako gora jotzeko errekurtoak: formularioa eta erregistroa.

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 8